



AUZO BILERAK 2024

AUZO: Ugaldetxo

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2024/10/02	18:00	

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Joana Mendiburu, Garazi Urdampilleta, Edorta Fernandez eta Olaia Lasa			
Herritarrak: 30	Euskaraz: 30		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 17		Gizonezkoak: 13	
	<30 urte: 1	31-50 urte: 4	51-65 urte: 17	>66 urte: 8

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Batzarrean landuko diren gaiak aurkeztu dira.
Legealdi planaren jarraipena	<p>Lan ildo nagusi edo estrategikoen berri eman da.</p> <p>Legealdi planaren jarraipena eta urteko helburu nagusiak aurkeztu dira:</p> <p>2024:</p> <ul style="list-style-type: none">- Ongizate saila Fermiñenera lekualdatu da. Elkarlanerako erraztasun handiak ekarri ditu horrek. Erabiltzaileak eta herritarrak gustura daude kokapen berriarekin.- Udaleko euskara plan berria idatzi da.- Oiartzun irratitari bultzada bat eman zaio. Herrian gai horretan adituak diren zenbait pertsona elkartu dira horretarako.- Euskara eta kulturartekotasuna sustatzeko programa abiatu da herriko ikastetxeetan. Gailu teknologien erabilera eginez herrira iritsi berriei harrera egiteko helburua du (guraso bileretan adibidez).- Aurten lehen aldiz mugaldeko udaleku ibiltariak antolatu dira. 30 bat gaztek parte hartu dute. Datorren urtean ere egiten jarraitzeko asmoa dago.- Mugikortasun eta energia plana idatzi eta onartu dira.



- Lehen sektoreko doako ordezkapen zerbitzua martxan jarri da.
- Burujabetzen prozesua martxan jarri da. Aurten jardunaldiak antolatu dira Oiartzunen Udalbiltzarekin batera.
- Hirigintza aldetik plan ezberdinak daude martxan: Arraguan egingo diren 400 etxebizitzetako prozesu partehartzailea egin da. ELI6 eremuan ere 200 bat etxebizitza egingo dira. Horrekin lotuta, hirigintza ikuspegi feministatik
- Inbertsioetan. Futbol zelaia, bidegorriko azken tunela, Ugaldetxoko lotunea, Zurko baserriko bidezidorra eta Mendinekin ere. Bi lotura berri.

2025:

- Herritarren Arretarako gune berria martxan jarriko da. Lehen Sabadell-eko bankua zegoen lokalean egingo dituzte aurrerantzean herritarrek udalarekin lotutako gestioen gehiengoa.
- Mugikortasun plana eta energia plana (Rafael Pikabea...) gauzatzen hasiko dira.
- Atez atekoaren bilketa kudeaketan hobekuntzak egingo dira. Horretarako, Arraguan proba pilotu bat egingo da.
- Burujabetzen prozesuarekin jarraituko da. Mahaiak martxan jarriko dira jardunaldien ondoren.
- Hirigintza planak herritarrekin lantzen jarraituko dugu. Arragua, ELI6 eta Ugaldetxo.
- Musika eskola publikoa sortzeko parte-hartze prozesua egingo da. Aurten lanketa bat egin da.
- Liburutegia berritzeko parte hartze prozesuan lagundu. Eraikina berrantolatuko da, erakargarriago egin eta herritar guztien eskura jartzeko.
- Merkataritza txikia sustatzeko plana egingo da.
- Naturguneen azterketa egingo da, bioaniztasuna zaintzeko.
- Haur etorri berriek euskara ikasteko esperientzia pilotua martxan jarri nahi da. Hezkuntzarekin lantzen ari da gaia.



	<ul style="list-style-type: none"> - Inbertsioak: Altzibarko gune estalia, ikasketa gela berria, energian, ur hoditerian, mugikortasunean...
<p>Ordenantza fiskala eta aurrekontuak</p>	<p>ORDENANTZA FISKALAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ordenantza fiskalak hiru helburu izanik berritu dira:. - Errenten araberako ordenantzak, Klima aldaketaren aurkako neurriak saritu eta etxe hutsak merkaturatzeko hartu genitzakeen neurriak hartu. - %2 igoera tasetan eta KPI-%3,4. - Kohesio soziala zaintzeko, Aztikerrekin azterketa sozioekonomiko bat egin dugu Oiartzungo errealitatea ezagutzeko. - Kohesio soziala. 3975 bitzta unitate Oiartzunen. Familia errentari dagokionez. 50 familia, adin txikiko batekin <13.500€, 50 familia bi adin txikiko <13.500-26.000€. - <13.500€ errenta duten bizikidetzta unitateentzat udako igerilekuetarako prezio murriztu bereziak egon dira. - Trakzio mekanikoa familia ugarietara errentaren arabera. - Gainerako herrietan bezala, Oiartzunen biztanleriaren zahartzea ikusten da. >65, gorakoak 20 urteetan %8 igo da. Kiroldegian 65 gorakoak prezio murriztua izango dute, zahartze aktiboa bultzatzeko. - Ekonomiarekin lotutako datuak: %75ak zerbitzuetan egiten du lan, industrian gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun handia. Nekazaritza eta abeltzaintzan gutxiengoak egiten du lan. Langabezia tasa % 5 inguru. - Transizio ekosoziala (energia, mugikortasuna eta hondakinak). Legeak energia kontsumoak % 35 jatsi behar ditugula eskatzen du. 15 eraikin nagusiak kontsumoaren %85aren erantzule dira. Elorsoro kiroldegia da Udalaren energia kontsumoaren %37a. Energiaren %32 energia berriztagarrietatik etorri behar da. Udalaren zuzeneko kontsumoa jaisteko neurriak. Ekonomia sektoreetan eta etxebizitzetan energia eraginkortasuna bultzatzea. Mugikortasun iraunkorraren aldeko neurriak. Klima aldaketaren inpaktuen jarraipena egin: ibaiak, naturguneak, itzalak...

- Hobariak: Energia aprobetxamendu sistemak (eguzki panelak) jarriz gero %50eko hobaria izango da. Instalazioetan %95eko hobaria egongo da. A eta B energia-efizientzia lortzeko eraikuntza, instalazio edo obrak egin behar izanez gero, hobaria izango da, %95 eta %80 bitarte.
- Mugikortasun planean (2024-2028), 5 ildo estrategikotan jasotako 35 ekintza jasotzen dira: Oiartzungo ardatz aktiboak, garraio publikoa, kotxearen kultura murriztea, jarduera ekonomikorako eremuetan eragite eta hirigintza eta mugikortasuna.
- Mugikortasunarekin lotutako hobariak: etxebizitza komunitateetan bizikletak aparkatzeko gune berriak sortzeko obratan %95eko hobaria obren zergan. Interes publikoko obra izendatu beharko ditu plenoak. Trakzio mekanikoen zergako hobariak CO2 isurien arabera.
- Hondakinak: 7/2022 legea dator Europatik eta 2030erako % 70eko birziklatze tasa izan beharko dugu. Oiartzunen gaur egun %78ko birziklatzeko tasa dugu atez atekoari esker. Bakoitzak sortzen duen hondakinaren arabera tasak ordaintzera bideratuta dago legea eta gu ere bide horretara lerratzen hasiko gara. Beste helburua defizit 0 filosofia da. Tasekin ordaindu beharko da hondakinen kudeaketa. Gaur egun, 1.000.000€ finantziatu behar du tasetatik. Orain arte %60 kubritzen zuen tasak eta Udalak gainerakoa ordaintzen zuen. Udalak gastu hori nola murriztu aztertuko du. Aurten, hala ere, hondakinen tasa garestitu egingo da. Ondorengo izango da tasa: 4€/hilabetean, 56€/lauhileko eta urtean 168€. Gipuzkoako beste herriein konparatuz 5 merkeen artean gaude, bilketa sistema dena delakoa dela. Defizit 0-rako, 200€ inguruko tasa beharrezkoa izango da etorkizunean.
- Etxebizitzak: ginkargua etxe hutsetan %100 izango da. Hobari berri bat %50eko hobaria izango da Bizigune edo ASAP programetan sartzen diren etxebizitzentzat.

UDALEKO AURREKONTUA

- 2025eko aurrekontua 20 milioi ingurukoa izango da.
- Sarrerak: Nagusiki Foru Aldundiko funtsez osatua da. Zergak % 33a. %17a tasak



	<p>- Gastuak: Pertsonal gastuak gastuen herena dira (%34), diru laguntzetan %18. Gastu arruntak eta zerbitzuak %36,4. Inbertsio errealetarako %10,2.</p> <p><i>CO2 isurien baitako hobariak aplikatzeak zalantza sortu du. Kotxe elektrikoek denboran akaso gehiago kutsatu dezaketela aipatu da eta hori aplikatzera goazen hobariak ez duela kontenplazten aipatu da.</i></p> <p><i>%60a bada herritarren eta enpresen tasetatik ordaintzen dena eta %40 a udalak jartzen duena, zergatik igoera %45ekoa da eta ez %40koa?</i></p>
Auzoa	<p>-Eskaerak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Kalexako etxeetan motorrak aparkatzen dira. Udaltzainei deitu behar zaie momentuan bertan• Kalexan elbarrituen lekuaren ondoan aparkatzen da eta horrek eragozpenak sortzen ditu. Udaltzainei deitu behar zaie momentuan bertan• Basoak erreka jaten du Ugaldetxo eta Ibarre artean• Mendibilen kimaketa lanak. Egoki egiten dira eta jakin behar da itzala asko baloratzen dela klima aldaketaren aurkako neurri gisa.• Matteoren ondoko seinalea lekuz aldatu• Juansendoko bizilagunek errepidea gurutzatu behar dute zaborrak zintzilikatzeko. Arriskutsua dela diote. Zaila dago aurreikusitako lur zatia ez delako gehiago Juansendorena.• Auzoetako jai batzordeen arteko bilera Komunikazioa eta elkarlana bilatzeko <p>- Egindakoa</p> <ul style="list-style-type: none">• Ugaldetxo poligonora bidegorri berria• Futbol zelaiko obrak• Ugaldetxoko eskolak: komunak, entxufe gehiago, filtrazioak• Mendibilen kimaketa lanak. Egoki egiten dira eta jakin behar da itzala asko baloratzen dela klima aldaketaren aurkako neurri gisa

-Egitekoa:

- **Mugikortasun plana:** Bidegorri lotura berria Mendineko bizilagunentzat
- **Hondakin ontziak ordezkatu** (ontziak eta papera) 2 gunetan

- Natur guneak eta kimaketak: Ugaldetxon Txara eta Urkabe oso utzita daudela aipatu da. Bizikletak ibiltzeagatik hondatzen ari dira gune hauek. Bizikleten abiadurak liskarrak eta arriskua sortzen dutela aipatu dute. Garai batean motoak ere ibiltzen zirela da eta galarazi egin zela aipatu da. OTXErekin hitz egitea proposatu da, kirola sustatzea ere helburu izan daitekeenez gaia landu behar da.

Udalak OTXErekin egingo du lehen kontrastea. Debekutik harago lanketa egin behar da.

- Etxebizitzaren proiektuan hiru promotora daudela ulertu da. Argitu da promotora bakarraren eskutan dagoela eremua. Egoera zein den galdetu dute. Udaletik erantzun da: Mateoko zubia harrobiruntz mugitzen dela aipatu da. Biribilgune bat egingo da bertan baina horrek plan orokorra aldatzea eskatzen du. Horrek prozesua luzatzen du eta promotorak beste proposamen bat egin du biribilgune gabe. Ekarritako proiektua ez da ontzat eman eta beraz, hasierako planera itzultzen gara, honek lanak hastea atzeratuko du. Hasierako proiektuaren antza handia du, ez da aldaketa handirik proposatu. Etxebizitza bakarrak ez direla egongo aipatu da. Altuerari dagokionez dauden etxebizitzaren altuera izango dutela jakinarazi da. Udalak eman duen azken mezua: Eskuartean plana dugunean auzora etorriko gara lanketa auzotarrekin egiteko.
- Obrak egiten direnean jaiak ospatzeko gune bat beharko dela aurreikusteko eskatu da. Lokala ere eremu horretara pasatzea proposatu da.

- Atamitxeko etxeen atzean dagoen zabaldian belarra ez da mozten, Amenabarrekin lantzeko eskatu da. Zabaldi horrekin zerbait egin daitekeen galdetu da. Badirudi promotoreanarena dela eta zesioa egingo duela esan du obra guztiak amaitzean.

- Kalexa plaza txukuntzeko eskatu da. Horretan ari garela jakinarazi da. Tapatzeko aukeraz galdetu da baina ezin dela erantzun da. Zaborrontziak maiztasun gehiagorekin jasotzea eskatu da.

- Ugaldetxon guneren bat estaliko ote den galdetu da. Udala hori aztertzen ari dela jakinarazi da.

- Auzotik ateratzeko bide berriren bat egongo ote den galdetu da. Trafikoaren lanketa egiten ari gara Lanbarrenekin. Lezorekin batera lanketa egiten ari gara autopistako sarrera berri baten proiektua. Foru aldundiak plataforma logistikoa aurreikusten du zonaldean eta orduan lanbarrenera eta lezora biadukto bat planteatzen du. EHBilduko eskualdeko udalek plataforma hori ere zalantzan jartzen dugu beraz, biadukto horri alternatiba bat proposatzeko proiektua egiten ari gara. Kontuan izan behar dugu garraio publikoan ere honekuntzak datozela, Topoko maiztasuna igo egingo da, autobus zerbitzuak ere hobetu egingo dira beraz honek ere kotxeak gutxitzea ekarri beharko luke.

- Autobusen maiztasunaren inguruan galdetu da. Azaldu da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena dela eskualdea Donostialdearekin lotzen duen autobusena. Partekatu da lehiaketa berria egitear dagoela eta enpresa berri batek kudeatuko duela, esleipen hau ematen denean autobusen maiztasunak hobetu egingo dira Oiartzunen eta linea berri batzuk ere sortuko dira.

- Plastikoa jasotzeko jarriko diren rafiako boltsen neurria kontutan izateko eskatu da, txukunagoa izan dadin.



	<ul style="list-style-type: none">- Mendineko frontoian iturri bat jartzea eskatu da. Isastin bat jartzea ere eskatu da.- Isastiko espaloia ere konpontzeko eskatu da. Bai hori eta Mendibileko frontoien atzealdea konponduko dela jakinarazi da.- Intxisu aurrean dagoen autobus geltokian baldosa bat suelto dagoela jakinarazi da.

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8
bilera ongi gidatu da	9
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	9
Auzotar kopurua	6
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7
Saioa probetxugarria izan al da?	8
Egunaren egokitasuna	8
Orduaren egokitasuna	8
Lekuaren egokitasuna	9